

(Laodizeako Eleizeari)

Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak. Ez zara hotz, ez bero. Ai hotz edo bero bazina! Baina epel zaralako, eta ez bero, ez hotz, botagura emoteraino nazkatzen nozu. Ez dakizu gizarajoa zarana, errukarri eta behartsua, itsu eta biluzik zagozana. Aholku hau emoten deusut: erosi kolirioa begietan emoteko, ikusi daizun. Maite ditudanei egiten deutset agirika nik. Izan, beraz, sutsu, eta aldatu jokabidez. Hara, atean nozu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten badau eta atea zabaldu, harenean sartuk onaz, eta alkarrekin afalduko dogu.

JAUNAK ESANA

*Isilune baten ondoren, Jainkoaren Hitzak bakoitzaren bihotzean izandako oihartzuna aitatu daiteke.*

*Amaitzeko, Gure Aita errezatu daiteke eta eleizbarrutiko zaindari dogun Begoñako Amaren kantu bat abestu daiteke.*

## 1. FITXA - BEREIZKETARAKO TALDEA

### Eleizbarrutiko bereizketaren helburua

**Otoitz eta irekitasunezko giroan, antzeman daigun alkarregaz zelan hitz egiten deuskun Jaungoikoak bizi dogun garai honetan, zelan agertzera emoten jakun gizarteko eta Eleizako inguruabar honeetan eta zelan erantzun deikeogun, hankak lurrean doguzala, gure aukerak kontuan hartuta, bat egiteko dei horri.**

### Zelan parte hartu?

- Bereizketa-prozesua, hasiera batean, **zabalik dago parte hartu gura dabenarentzat**. Bidea leku bakotxean zehaztuko da jagokon arduradunaren eskutik (ekipo ministeriala, pastoral taldea, alkar-teetako, komunitadeetako, mobimentuetako, kuriako zerbitzuetako... arduradunak). **Ahalik eta gehien parte hartzea** nahi da.
- Eleizbarrutiko bereizketa ahalbideratzeko, **ezinbestekoa da izena emotea** eta talde bakotxean hausnartutakoa **jasotea**. Errazagoa izan daiten, **on-line** zerbitzua be martxan jarriko da [www.bizkeliza.org](http://www.bizkeliza.org) web orrialdearen bitartez.
- Nahitaezkoa da ibilpide osoa egingo daben **talde egonkorrak** egotea. Talde bakotxean, saioen egutegia eta batzarrak gidatzeko eta emaitzak jasotzeko arduraduna (moderatzailea) zehaztea komeni da.
- Taldeetan ahalik eta **adostasun** handiena lortu behar da. Alde batetik taldean eragina daben erabagiak hartzen laguntzean datza eta, bestetik, beste talde batzuetan erabagiak hartu ahal izateko elementuak eskaintzean.
- Taldeak berari dagokion inguru edo pastoral arloko **errealidade zabalagoari** begiratuko deutso batez ere.

## Jokabidea

### – Saihestu:

- *Sentimentalismoa*, gogo-aldarte aldakorrak, begikotasun eta ezinikusiak.
- *Errazionalismoa*: Ez dago benetako arretarik. Eztabaida arrazoiaren, sistemen, eretxien edo aurreretxien ingurukoa izango da. Ez da hartu-emon pertsonalik lortzen, hoztasuna eta tirabira dira nagusi. “Jakintsuek” hitz egiten dabe eta ahulak isildu egiten dira.

### – Bilatu

- *Alkartze pertsonala*, errespetuz eta askatasunez; norbere esperientziatik hitz egin, entzuteko eta egia esateko gogoagaz.
- *Heldutasuna eta oreka*, tirabirak gainditzeko eta sentimendu, gogo-aldarte eta pentsamoldearen komunikazioari bide egiteko.
- *Nork bere buruari itaundu* apostolutzaz, alkarte bizitza eta ekintzari begira adostasunera iritsi ahal izateko.

## LEHENENGO BATZARRERAKO OTOITZA

### Sarrera

Gure eleizbarrutia azterketa eta bereizketa prozesu bat hastera doa. Hau da, Jainkoak bere Hitzaren bitartez eta gaurko egoeran adierazo nahi deuskuna entzun, ulertu eta bideratu nahi dogu. Gure alkarteak eta gure Eleizek zintzo bete gura dabe ebanjelizatze lana gaur eta hemen.

Jaunak zabaldu daizala gure buruak eta bihotzak, otoitzaren, gogoetaren eta alkarrizketaren bidez, bere nahia bilatu eta betetzeko gauza egin gaizan.

### Goratzarrea

Zabal, otoi, Jauna, nire begiak,  
ikus ditzaten zure bihotzaren miragarriak.  
Bide bazterrean bainago itsu, senda nazazu:  
Zu, nire Jauna, Zu ikus zaitzadan.

**Iturrira itzuli** eta Ebanjelioaren berezko freskotasuna berreskuratzen saiatzen garan bakoitzean, bide barriak sortzen dira, sormena daben moduak, adierazteko beste erak, ezau-garri esanguratsuagoak, gaurko munduarentzat esanahi barritua daben hitzak. Egiaz, benetako ebanjelizatze ekintza beti da «berria» (11).

**Eliza partikular bakoitza** ere, bere gotzainaren gidaritzapean Eliza katolikoaren zatia izanik, deitua dago bihotz-barritze misiolarira, Eliza bakarraren agerpen zehatza dalako munduko leku batean, eta berarengan «egiaz bertan dago eta jardunean ari da Kristoren Eliza, Bat, Santu, Katoliko eta Apostolikoa». Gune jakin batean hazurmamitu dan Eliza da, Kristok emondako salbamen bitarteko guztiz hornitua, baina tokiko aurpegia dauana. Jesukristo ezagutarazteko poza agertzen da, behar gehiago daben tokietan hots egiteko dauan kezkan eta baita bere lurraldeko periferietara nahiz gune soziokultural barrietara etengabe ateratzean ere. Piztuaren argia eta bizitza gehien behar dan tokietan egoten saiatzen da. Bultzada misiolari hau biziagoa, eskuzabalagoa eta emonkorragoa izan dadin, dei egiten deutsot Eliza partikular bakoitzari bereizmen, garbikuntza eta erreforma bide erabakior batean sartu dadin (30).

Gaur egun, hobetzeko proposamenik eta gauzatzeko erraztasunik bako «**gehiegizko diagnosi**» batez hitz egin ohi da. Bestalde, begirada soziologiko huts batek ere ez leuskigu balioko, errealitate osoa era neutro eta kutsu-gabe batean beregan hartzeko gogoia izan leukelako. *Bereizmen ebanjeliko* baten ildoak aurkeztu nahi neukez, ezer baino gehiago. «Espiritu Santuaren argitan eta beronen indarrez elikatzen» dan ikasle misiolariaren begiratua da (50).

Honek lortzeko bitartekoak alkarrekin pentsatu barik helburuak zehazteak fantasia hutsean geratzeko arrisku handia

- **Nahitaezkoa da alde zurretik bakarka lan egitea.** Hauxe da, zalantza barik, giltzetako bat, prozesuak bere helburua bete daian.
- Landutakoa domekako eukaristian parte hartzen dabengana iristea komeni da.

### Lehenengo saioaren garapena

- Kideen eta moderatzailearen aurkezpena
- Saioen egutegia zehaztu
- *Evangelii gaudium* idaztiko atalak irakurri eta komentatu
- *Alkarte-bereizketa* idazkia irakurri eta komentatu
- Otoitza
- Hurrengo batzarrerako (abendurako) itaunketa banatu

### EVANGELII GAUDIUM HITZ-APOSTOLIKOTIK HARTUTA

Gaur, Jesusen «zoaze» horretan presente egiten dira Elizaren ebanjelizatze-egitekoaren gertaleku eta erronka beti barriak, eta danok gara deituak «**abiada**» misiolari barri honetara. Kristau bakoitzak eta alkarte bakoitzak **bereiziko dau** zein dan Jaunak eskatzen deutson bidea, baina danok gara dei hau onartzera gonbidatuak: norbere erosotasunetik urten eta Ebanjelioaren argia behar dabengandik periferia guztietara iristera ausartu (20).

Gizadiarekiko bere maitasun-misterioaren parte bezala, Jainkoak *fedezko sena* —*sensus fidei* delakoa— emoten deutse fededun guztiei egiaz Jainkoarengandik datorrena **bereizten laguntzen** deusena. Espirituaren presentziak jainkozko gauzekiko berezko joera emoten deutse kristauei, eta horrek intuizioz bereganatzen laguntzen deutsen jakituria ere bai, zehaztasunez adierazteko tresna egokiak ez baditue ere (119).

Zabal, otoi, Jauna, nire eskuak:  
beude zabalik, ta piztu bitzate bihotz ahulduak.  
Gaitz guztien gaindi noan Zurekin; har ni eskutik,  
gurutzera ere joan ahal nadin.

Zabal, otoi, Jauna nire bihotza,  
entzun dezadan behartsuen deian Kristoren boza.  
Askorentzat, Jauna, Zu hila zaude; egon nirekin;  
inoiz gal ez nadin, pitz nigan fede.

### Apokalipsi liburutik (Ap 2-3)

*Hasieratik gehiago, kristau alkarte Jainkoaren deiak eguneroko bizitzan aztertzeraz deitua da. Apokalipsi liburuaren esanetan, “Espirituak eleiz alkarteei esaten deusena” entzun behar da. Entzun daiguzan arretaz deiotariko batzuk.*

(Efesoko Eleizeari)

Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak, zure lanbide neketsua eta eroapena... Badozu eroapenik eta nigaitik nekeak jasan dituzu, etsi barik. Baina zure aurka badot zerbait: gadu egin dozula hasierako maitasuna.

(Sardeseko Eleizeari)

Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak; bizi danaren itxura dozu, baina hilik zagoz. Zagoz erne, eta indarbarritu egizu oraindik bizirik daukazuna, erabat hil baino lehen... Oroiz aitez zelan entzun eta onartu dozun mezua: eutsi eiozu, aldatu jokabidea.

(Filadelfiako Eleizeari)

Ezagun-ezagunak ditut zure egintzak, eta inork itxi ezin dauan atea itxi dot zure aurrean zabalik. Indar handirik ez dozun arren, onartu egin dozu nire mezua eta ez dozu ukatu nire izena.

dau. Dokumentu honen argibideak eskuzabalez eta ausardiaz erabiltzeko deia egiten deusuet guztioi, debekurik eta beldur barik. Bidea bakarrik ez egitea da garrantzitsua, senideak ondoan izatea eta bereziki gotzainen gidaritzapean jardutea, **pastoral bereizmen jakintsua eta errealista** eginez (33).

«Kanpora ateratzen» dan eliza, atea zabalik dituan Eliza bat da. Giza-periferietara heltzeko besteengana ateratzeak **ez dau esanahi inolako norabide eta zentzu barik mundura korrika joan behar dogunik**. Askotan pausoa moteltzea da, antsietatea alde batera iztea begietara begiratzeko eta entzuteko, edo larrialdiei uko egitea, bidean geratu zanari laguntzeko. Seme hondatzailearen aita bezala da batzuetan, atea zabalik geratu zan eta, itzultzean arazo barik sartu ahal eitean (46).

## ALKARTE-BEREIZKETA

### Atarikoak

Zelan hartu motibazino arrazional eta afektibo hutseatik ez ezik, Jaungoikoaren borondatearen argira eragindako erabagia?

*Behar-beharrezkoak ditugun jarrerak*

a) *Jaungoikoaren borondatea bilatzeko eta egiteko grina*  
Sinistedunaren jarrerarik erradikalena da. Horri eskaintzen deutso Jesusek bere indar espiritual osoa. Jesusen atzetik joatea, bere bizitzako grina horren jaube egitea da. Beraz, Jaungoikoaren Erreina izango da bereizketaren helburu nagusia.

b) *Norbere buruagan arreta jar-teari itzi: “norbere maitasunetik, nahitik eta interesetik urten”*  
Aurkitzeko atera beharra dago. Zelan urten, benetan norbere baitatik, Jaungoikoaren interesetan arreta jar-teko?  
– Geurea zalantzan jarten daben beste pentsamolde batzuetara zabaldu.

- Gure sasoiko gizon eta emakumeen, batez be behartsuenen eraginpean jarri.
- Nork bere burua onartzeko adorea izan.

### Eskakizunak

- *Norbere jarrera positiboak landu*
- *Hartu-emonaren benetakotasuna*: nazan lez agertzen naz eta besteari dan lez izateko eta adierazoteko aukerea emoten deusat.
- *Entzutea*, hau da, arreta eta pazientzia, arrazoiez gainera, besteengoko-aldarteak ulertzeko.
- *Adierazpenaren benetakotasuna*, harremanetan jar-teko eta pentsatzen doguna komunikatzeko, inor ez dala arrazoiaren jaube jakinda.
- *Kidetasun-sena*, taldean ardurakide garala jakinarazoten deuskuna.
- *Norbere jarrera negatiboak makaldu*
- *Entzuteko*, harremanetan jar-teko eta alkarrizketan jarduteko *gaitasunik eza*; axolagabekeria.
- *Nork bere burua aski izatea, azalekotasuna eta permisibitatea*; eragozpena dira nork bere burua sen kritikoaz hartzeko eta Jaungoikoagazko hartu-emon zintzoa izateko.
- *Despertsionalizazioa* jarrera taldekoiengaitik edo interkomunikazio askerako, aniztasun eta desadostasunerako heldutasunik ezagaitik.

### Taldean bultzatzekoak

- Kideen arteko adiskidetasuna hazteko joera.
- Personei lanari baino garrantzia gehiago emon.
- Poztasunak eta atsekabeak konpartitzera ohitu.
- Inguratzen gaituen segurtasunik eza eta oldarkortasuna gaintzetzeko bideak eskaini.
- Norbere interes, ideia edo ustak erlatibizatu.
- Taldea senide maitasunaren eta emoten deuskun Jaunaren gainean sortu.